B
BARREN
ELGOIBAR - 650. zenb. - XVI urtea - 2008-04-11

# Elkartasun oporrak Saharan

Larraitz Zialtzeta,
Nerea Bastida eta
Maialen Astigarraga



# Elgoibar
# Residencial Géminis

*Hobeto bizi!*





**Etxebizitza**
**berri eta esklusiboak**
garaje eta trastelekuekin
**266.000** eurotik.

• • •

2008an emango dira!



Informazioa eta salmenta:
**Trenbide Kalea 21, bajo• 20870 Elgoibar**

**943 74 80 92**

**www.grupogsi.com**

Gsi
(Ongizate eremuak)

# Lidergoa ala obligazioa?

Orain dela gutxi lidergoari buruzko liburu bat irakurri dut. Idazlea gai honi buruzko hainbat galderari erantzuna ematen saiatzen da: zer da benetako liderra izatea? Liderra jaio ala egin egiten da?

Kontua da, liburua irakurtzen nengoela, txikitako momentu bat etorri zitzaidala burura. Hamabi bat urte izango nituen amamak bazkalostean kafea egiteko eskatu zidanean: "Egizu kafia, politta". Ama zen orduraarte etxean kafea prestatzen zuena, nik ez neukan ideiarik ere. Gustura erakutsi zidan amamak kafea prestatzen. Handik aurrera zapatu guztietan kafea prestatzen hasi nintzen. Ilusioz hartzen nuen iniziatiba. Inork ezer esan baino lehen egiten nuen. Kafe-lider bihurtu nintzen. Baina konturatu gabe, gustuko nuen etxeko lan hura obligazio bihurtu zen niretzat, eta horrek ez zidan batere graziarik egin.

Lider izatearen alde txarra ikasi nuela uste nuen, baina oker nenbilen. Orain dela gutxi antzeko zerbait gertatu zait bestelako gai batekin. Zortzigarren mailako afariarekin hain zuzen ere. Jakin guztiok badakigu horrelako "afaritxoa" antolatzeak dakartzan burukominak: klaseko izenen zerrenda egitea, jatetxea erreserbatzea, bankuko kontua zabaltzea... Badakigu baita ere, lidergoa inork bere gain hartzen ez badu afaririk ez dela egingo. Soluzioa? Erraza: Behin antolatzeaz arduratu direnek egin dezatela hurrengoan ere! Eta hala gertatu da beti.

Bai, badakit. Alferrik da orain sermoia botatzen hasten banaiz, afaria antolatzen betikook jarraituko dugulako. Horregatik, hemen dauzkazue aurtengo 8. mailako afariko datuak:

Eguna: Apirilak 26

Kontua: 3035 0007 210070057872 (Euskadiko Kutxa / Caja Laboral).

Zenbatekoa: 30.

Izena emateko azken eguna: apirilak 30.

P.D.: Benantzio, zerura iristean kontutan izango al ditu Jaunak lagunei egindako fabore guztiak?

Aitor Gisasola



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Konturatu gabe, gustuko nuen etxeko lan hura obligazio bihurtu zen niretzat, eta horrek ez zidan batere graziarik egin"**

Domeka gauetako zine emanaldia kendu egin du Udalak

Joaten zara Herriko Antzokira zinea ikustera?

Erantzunak
BIDEO INKESTAN



Egin klik eta ikusiko duzu

www.elgoiBARREN.net

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA



# GOIATZ MINGUEZ

BERDINTASUN TEKNIKARIA

## "Berdintasun teknikari gutxi dira gizonezkoak"

**Elgoibar, Deba eta Mutrikun berdintasun planak bideratzeko ardura hartu du. Aste gutxi darama postu horretan, baina gizarte hezitzaile gazte honek eskarmentu handia du. Hamasei urtetatik militatu du talde feministetan, eta Nazio Batuetako Emakumeen Fondoan ere jardun du, Txilen urtebetez eta Uruguain, bi urtez. Astelehenetan eta eguenetan, goizeko 9:00etatik 14.00etara, aholkularitza eta laguntza behar duen edonor udaletxera gerturatu daiteke, edo *berdintasuna@debegesa.com* e-postaren bidez jarri daiteke berarekin harremanetan. Bere zeregina Berdintasuneko Lehen Plana egitea izango da, eta emakume taldeen eta gizonezkoen iritziak kontuan hartuko ditu. Herriko egoeraren diagnosia prestatzeko lanean dihardu ermuar honek. Herriko plana udarako bukatzeko asmoa du.**

**Berdintasunaren aldeko borroka oraindik ere talde feministen esku dago gehienbat?**
Bai, baina zabaltzen ari da, eta beharrezkoa da guztiok inplikatzea. Aldaketa, azkenenean, norberagandik hasi behar da. Berdintasunaren aldeko borrokak kontzientziak zirikatzen ditu. Plan horretan arlo guztiak hartzen dira kontuan: hezkuntza, hirigintza… Plan bakar batekin ez gara iritsiko bi urtetan berdintasun erreal batera.
**Zertarako kontratatu zaituzte?**
Berdintasun planarekin aurrerapausoak lortzeko eta Udalak erreminta hori izateko. Politika herrritarrentzat da, eta horiek gizonezkoak ala emakumezkoak dira, eta beraien beharrizanak kontuan hartu behar dira.
**Udalean zenbat gizonezko eta emakumezko dauden kontatu duzu?**
Udaleko plantilla aztertuz diagnostiko bat egin zen. Badakit lehen emakume bat zegoela alkate, betiko dinamika apurtuz; orain gizonezkoa dago. Normalean emakumezkoak gizarte arloetako arduradunak dira eta, gaur egun, Elgoibarko Udalean Ogasun Sailaren burua emakumezkoa da. Pertsona prestatuak izatea da balio duena.

> **“Plan bakar batekin ez gara iritsiko bi urtetan berdintasun erreal batera”**

**Berdintasun teknikaria modan dago, ingurumen teknikariaren moduan?**
Berdintasun legea irten denetik, berdintasun plana, berdintasun zerbitzuak... sortu dira. Herri txikietan zailagoa da berdintasun plana gauzatzea, Udaleko eguneroko kudeaketan beti daudelako milaka gorabehera. Lehentasunak zehaztea oso zaila da.
**Kuotak errespetatu egin behar dira?**
Alderdi politiko batzuek horren alde egiten dute, eta kuota zehaztuta daukate; beste batzuek, ez... Ez da derrigorrezko kontua, baina neurri positiboa da emakumeen presentzia ziurtatzeko udaletan eta alderdi politikoetan.
**Berdintasun teknikari asko emakumezkoak dira?**
Gehienak. Mutilek maskulinitatearen gaietan egiten dute lan berdintasunaren arloan, ezagutzen ditudanak behinik behin.
**Gizon elkarte asko daude…**
Emakumeok lortu dugu gure eztabaidarako espazioa, eta horri eustea nahi dugu. Txalotzen dugu gizonezkoak antolatzea eta euren borroka egitea berdintasunaren alde. Uste dugu berdintasunarekin gizonezkoek eta emakumezkook irabaziko dugula, eta prest gaude elkarlanean berdintasunaren alde lan egiteko.
**Herrian Haizea emakume taldea dago. Eurekin bilduko zara?**
Eguazten honetan (apirilak 9) bilduko gara. Orain osatzen ari garen herriko planean emakume taldeak gonbidatuta daude. Herriko emakumeak deituko ditugu, baina gero elkarteei dagokie Udalari exijitzea euren aldarrikapenak eta ebaluaketa lana egitea.
**Genero indarkeriaren inguruan ere lan egiten duzu?**
Bai. Normalean gizarte zerbitzuetatik bideratzen dira; eurek egiten dute detekzioa eta protokolo bat martxan jartzen dute. Debabarrenean egin dugu genero indarkeriaren diagnostikoa, nola hobetu jakiteko, eta orain protokolo hori martxan jarriko dute. Nire egitekoa koordinatzea da egiten ari diren lana. Gero, neurriak hartzea politikarien ardura da.
**Eta hartuko ez balituzte?**
Ez nuke esku hartuko. Berdintasun planak lehenago hasi behar zuen, baina Foru Aldundiak diru-laguntza atera zuen indarkeriaren diagnostikoa egiteko, eta horri eman zitzaion lehentasuna. Normalean, plan baten ostean, bigarrena dator, eta hartu ez ziren neurriak berreskuratu egiten dira, lehentasunezkoak diren ala ez ikusteko.
**Emakunderen *Gizondu* ekimenak aitortzen du berdintasunak gizondu egiten duela. Etxeko lanei eta seme-alabak zaintzeari gizonek eskaintzen dieten denbora %20 igotzea da helburua. Herrian ere egin daiteke zerbait?**
Bai. Gizonezkoek gehiago inplikatu behar dute. Elgoibarren badaukazue Luis Cerronen adibidea, “Friego, luego existo” liburuaren egilea. Espero dugu bera ere gurekin elkarlanean aritzea. Horrelako gizonak erreferenteak dira. Emakundek ere sare bat egin zuen maskulinitatearen inguruan mintzatzeko.
**“Agresibitatea eta nagusitasuna maskulinotasunaren ezaugarriak dira”, izan zen leloa. Gogorra, ezta?**
Bai, baina egia da gaur egun harremanak agresiboagoak direla.

> **“Normalean emakumezkoak gizarte arloetako arduradunak izaten dira Udaletan”**

**Gizonezkoek informazio hutsune handiagoa dute?**
Askotan azaleko informazioa jasotzen dugu. Askotan uste dugu nahikoa informazio ematen zaiola jendeari, baina agian ez da horrela. Gizonezko askok badute aitatasuna eskatzeko eskubidea, baina normalean emakumeak eskatzen du amatasun eskubidea.
**Zergatik?**
Kontzientzia faltagatik. Neurri horrekin gozatu duten gizonak oso pozik daude. Pausoa ematea da kostatzen dena.
**Emakume asko frustratu egiten dira denera heltzeko denbora ez dutelako....**
Bai, eta gero eta jende gehiagok eskatzen du aitatasun eskubidea. Informazioa emateaz gain, sentsibilizazio kanpaina egin behar da.
**Kustodia gehienak emakumeei ematen zaizkie. Gizon asko kexatu egiten dira...**
Kasu bakoitza desberdina da, baina normalean emakumeari ematen zaio, bera izan ohi delako umeak zaintzen dituena. Kasuak banaka aztertu behar dira. Egia da gero eta gizon gehiago ari direla protesta egiten.
**Aitatasun eskubidea eskatu duen aita batek aukera gehiago izango luke gero semealaben kustodia lortzeko?**
Baliteke. Horrek erakutsiko luke berak lotura duela bere haurren hezkuntzan eta neurriak hartu dituela haiei denbora eskaintzeko.

**Andoni Iturbe**

# ELGOIBARTIK SAHARARA



**Maialen Astigarragak, Larraitz Zialtzetak eta Nerea Bastidak Mendebaldeko Sahara gertutik ezagutzeko aukera izan dute bost egun ahaztezinetan. Saharako Frente Polisarioak Euskal Herrian duen delegazioak elkartasun hegaldiak antolatzen ditu urtero, eta haietako batean joan ziren elgoibartarrok herrialde hura bisitatzera, maletak bete-beteta zituztela.**

**Andoni Iturbe**

Loiuko aireportutik hiru hegaldi irten ziren Tindoufera (Aljeria) martxoaren 18an. Hegazkin haiek ilusioz gainezka joan ziren Mendebaldeko Sahara ingurura, bidaiari bakoitzaren maletek botika, goxoki edo boligrafoak zituztela. Maialen, Larraitz eta Nerearen maleta bakoitzak ere hogei kiloko pisua zuen, bost egunetako bidaia egiteko demaseko pisua. Asmoa maletak erdi hustuta itzultzea zen, baina sahararren aldetik ere, opariak jaso zituzten. Elkartasun hegaldi horretan, elkartasuna hasiera-hasieratik jaso eta zabaldu zuten.

Nerearen mutilaren bidez enteratu ziren Saharako Frente Polisarioak Euskal Herrian duen delegazioa bidaia prestatzen ari zela. “Garazirengana heltzeko tartekari asko pasatu genuen. Garazi erdi saharar erdi euskalduna da. Han hamabi urtetan bizi izan zen, eta berak animatu gintuen”, adierazi digu Maialanek.

Bidaiaren helburua arrotza egiten zitzaien kultura ezagutu eta, bide batez, laguntzea izan zen. Baina ez ziren kanpamendu sahararretara lanera joan, nahikoa lan izan bazuten ere eramandako guztia ematen: dantza taldeko kamisetak, ospitaleko boligrafoak, Euskadiko Kutxako puxikak, botikak... “Orain, jakinda zer behar duten, botika gehiago eramango nuke”, dio Larraitzek, ogibidez medikua denak. Saharan izan zirela, aste batzuk pasatu badira ere, han bizi izandakoa gogoan dute. Besteak beste, Larraitzen segapotoan ere, elkarrizketan zehar, bi dei galdu egin zizkiolako esku zabalik hartu zien familiako gazte batek. “Handik kanpo daudenekin kontakturen bat izatea gustatzen zaie. Ondo iruditzen zait, daukaten egoera ikusita”, azaldu du Larraitzek.

> **“Estankaturik dago; ez dute autonomiarik nahi, independentzia baizik”**

## Ur faltik ez

Mendebaldeko Saharan uste zuten ur gutxiago izango zutela eskura. “Baina ia egunero etortzen zen bidoia betetzera kamioi-zisterna bat”, gogoratzen dute. Kanpamendu sahararretako etxe bakoitzari bidoi bana tokatzen zitzaion. Hala ere, herrialde arabiar askotan pasatzen den moduan, tripetatik gaiziki ibili ziren, nahiz eta botilako ura edan. “Zorionez azken egunean gaixotu ginen”, diote.

Oro har, nahikoa erraz moldatu ziren hango bizimodura. Batez ere ahalegin guz-

tiak egin zituztelako sahararrak eroso egon zitezen. “Zuten onena eman nahi ziguten eta ez zuten ulertzen gu lentejak jatearekin konformatzea”, dio Maialanek.

## Emakumeen egoera

Saharako neskek eta mutilek ez dute elkar agurtzen, baina “guk eskua luzatzen genien mutilak izan arren”, diote. “Alarguntzean emakumeak lau hilabete dolua igarotzen du, etxetik irten gabe, gizonik ikusi gabe eta, gero, zeremonia baten bidez, hennarekin margotu eta kalera irten daiteke jendeak jakin dezan lutoa bukatu dela”, azaldu dute.

Ezkondu aurreko sexu-harremanak (gizonezkoen kasuan ez, noski) ere gaizki ikusita daude eta, banandu ezkero, emakumezkoak geratzen dira seme-alabekin eta etxearekin. Nereak zirikatu egiten zituen bere mutil lagunarekin bizi zela esatean. “Baina entzun genien antisorgailuei buruz hitz egiten”, diote.

Gaztetxoak kanpora joan ohi dira, askok Espainian edo Italian pasatzen baitute uda, eta heldu asko Kubara joaten dira ikastera.

## Itzultzeko asmoa

“Alaba gazteena ekartzea gustatuko litzaiguke”, adierazi du Maialanek. Eskua aldean geratzen zaien henaren arrrastoak ikusita, askok galdetu diete ea Marokon izan diren. “Ezta pentsatu ere”, erantzun diete. Mendebaldeko Sahararen egoera ikusita, ez diote sinpatia handirik. “Estankatuta dago. Nazio Batuen Erakundean lehen aldiz mahai berean jarri dira saharar bat eta marokoar agintari bat. Eurek ez dute eskaintzen dieten autonomiarik nahi, independentzia baizik”, aldarrikatzen dute. Izan zuten armen museoa ikusteko aukera. “Zaharkiturik daude, baina gerran erabili zituzten arma horiek, erabiltzeko prest egon daitezke”, ondorioztatzen dute.

## ERREFUXIATUAK

200.000 saharar inguru Aljerian errefuxiatuta daude eta beste milaka erbestean. Maialen, Larraitz eta Nerea *daira* (herri) bateko kanpamenduan egon ziren. *Wilaya* (probintzia) bakoitzean 40.000 lagun inguru bizi dira. 30 kilometroko aldea dago batetik bestera.

## BAKEA

1991n Bake plana jarri zen martxan Nazio Batuen eta Afrikako Batasunaren aldeko Erakundearen babespean. Harrezkero, Marokoko Gobernua negoziazioei oztopoak jartzen aritu da, erabakitzeko galdeketa ez egiteko.

## Atlas batzuk onartzen dute Mendebaldeko Sahararen estatusa






Atlas askotan Mendebaldeko Sahara beste kolore batez agertzen da, 1.200 kilometro inguruko harresiaren bidetik. Hiru elgoibartar gazteak kanpamenduetatik irten eta txango bat egitera joan zirenean, kontrol aljeriar bat pasa behar izan zuten. “Esan ziguten Saharako bisatua genuela”, gogoratzen dute. 1975. urteaz geroztik, Espainiak Mendebaldeko Sahara laga eta Marokori eta Mauritaniari eman zienetik, ez du egoera samurra bizi izan. Baina duintasunez egin diote aurre etorkizunari, bidea arantzaz (pertsonen aurkako minaz) josita badago ere.

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: ***barren@elgoibarkoizarra.com***.

**Mendian motorrik ez!**

Nik uste dut goiko tituluarekin dena esanda gelditzen dela. Mendiko motorrak eta quadak soberan daude. Kitto! Eta ez naiz hori esateaz aspertuko. Azken batean, mendizaleok naturarekin kontaktua, patxada eta lasaitasuna bilatzen ditugu osteratxo bat egiten dugun bakoitzean. Baina, jakina, ia beti agertzen da mendi buelta izorratzen digun norbait, motor gainean.

Motorrean dabiltzanek ez dute mendizaleonganako inongo errespeturik. Burrundara jasan ezina da. Zarata gustuko baduzue, zergatik ez zarete kalean gelditzen? Mesedez, utz gaitzazue bakean.

Horrez gain, motorrok arriskutsuak dira. Istripua mendizaleekin ere izan dezakete. Susto bat baino gehiago izan dut eurekin topo egitean.

Bestalde, motorrek ingurumenari ere ez diote laguntzen. Edozein lekutatik ibiltzen dira eta lur guztia harrotzen dute, bai pistetan, bai basoan, bai zelaietan. Zuena ote da mendia?

Amorru handia hartzen dut mendian motorren batekin topo egiten dudan bakoitzean, eta gehienetan ez naiz ausartzen pentsatzen dudana eureri esaten. Behin egin nuen, baina asko haserretu ziren nirekin. Bazirudien jo egin nahi nindutela. Eskerrak borrokan jardutea ez dudan gogoko, bestela…

Hori guztia dela eta, makina horiekin mendian denbora ematea debekatu egin beharko luketela uste dut. Neurriren bat hartzea zaila izango da lurjabeentzat, baina Udalak edo Aldundiak zerbait egin beharko lukete. Beraz, Administrazioari zerbait egin dezan eskatuko nioke; mendizaleok eskertuko dugu.

MCBA

# ESKERTZA



2008ko apirilaren 9an hil zen ***Maria Echeverria Guenaga*** andrearen sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



**Barren**

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea: ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza, Andoni Iturbe PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.650 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Ane Odria



Maialen Olazabal



Kaixo Maialentxo!

Zelan Bilbo alde horretan? Badago nobedaderik? Ez dakit jakinaren gainean egongo zaren, baina bada nobedaderik, bai. Seguru ikusi duzula, Unibertsitate inguruan edo, Bilbon egingo diren jardunaldi feministen kartelen bat. Euskal Herrian egingo den laugarrena da, eta oraindik gauza asko egiteke dagoen seinale dira horrelakoak.

## “Zure inguruan, medikuntza alorrean, bada genero arteko desberdintasunik?”

Euskal literaturan, adibidez, emakumea 80. hamarkadan hasi zen indarra hartzen eta, gaur egun ere, Durangoko azokako lanetatik %22 baino ez dira emakumeek ekoiztutakoak. Gauzak ez daude ondo, eta emakumeak bizi duen egoera prekarioa delako daukagu besteak beste, martxoaren 8a. Alde batetik pentsatzen dut egun honi bakarrik begira baldin bagaude, oso urruti daukagula berdintasuna; eguneroko borroka behar da hemen. Bestetik, uste dut horrelako egunak lo dauden kontzientziaren bat edo beste altxatzeko gai direla, eta bada zerbait. Gogoan dut asko estimatzen dudan irakasle bat zapi more batekin etortzen zela ikastolara martxoaren 8an. Bere mahaian jartzen zuen zabal-zabalik eta, hein batean, eztabaida pizteko balio izaten zuen. Izan ere, badirudi eztabaidari beldurra edo diogula, eta hobe dela gauzak bere horretan lagatzea. Horrela, gauzak estaltzen saiatzen gara, nola edo ahala zerbait lortu dela esan eta dena ondo doala erakusteko. Maialen, zuk zelan ikusten duzu kontu hau? Zure inguruan ere, medikuntza alorrean, bada genero arteko desberdintasunik?

Kaixo Ane! Bilbo aldean badakizu, betiko martxan. Nobedadeak? Egon badaude, baina gaurkoan zureari jarraituko diot.

- Lanerako arropa lixatu al didazu? Afaria prest al dago? Komuneko papera falta da…

Horrelakoak entzunda, zer etortzen zaizu burura? Bi hitz jarriko dizkizut aukeran: aita edo ama. Ziur nago aita hitza pentsatu duzula, gainontzekoon %90ek (%99k ez jartzeagatik) egingo luketen bezala. Egia da, bai, oraindik ez gara benetako berdintasunera iritsi, eta orain arte gu guztion amak izan badira ere horren alde borrokatu dutenak, orain guri dagokigu. Hala ere, arazoa ez da etxeko lau hormen artean soilik gelditzen; literatura edo zientziaren alorrean begiratu besterik ez dago desoreka hori antzemateko.

## “Hemendik urte gutxira ospitaleak emakumez josita egongo dira”

Eta medikuntzan? Gure aitona-amonei galdetuz gero ea beraien medikua gizona ala emakumea zen, oso gutxik erantzungo digute emakumea zela. Baina gauzak aldatzen ari dira. Nire klasean 60 neska inguru gara eta mutilak sei baino ez. Proportzio hori nahiko adierazgarria da gauzak aldatzen ari direla baieztatzeko. Hemendik urte gutxira ospitaleak emakumez josita egongo dira.

Eta bukatzeko, argazki bat: arratsaldeko laurak dira eta ikastolako atean bi gizon daude. Batek motxila txiki bat du esku batetik zintzilik, eta besteak koadro gorridun poltsa txikia. Ateari begira daude eta halako batean han irten dira gorri, urdin eta arrosa koloreko *superman* txikiak korrika (ostirala eta mantalak etxera). Jauzi batez aitaren besoetara erori dira bi neskatilak. Zerbait aldatu da, ezta?

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
DANOBAT
kutxa
GOITI GRUPO DANOBAT

Altzolako Aurretxe etxean bizi diren okupak bertatik bidaltzeko tramiteak hasi ditu Udalak.

# Ondo iruditzen zaizkizu Altzolako etorkinekin hartutako neurriak?



**Mª Cruz Fernandez**

**55 urte, etxekoandrea**

Bai, hura ez da euren lekua. Ez da Udalaren ardura haiek etxerik ez edukitzea. Gizarte honetara egin behar dute. Ez dituzte zergak ordaintzen, hortaz ez dute eskubiderik.



**Pablo Lizundia**

**41 urte, industria-maixua**

Neurriak hartu beharrekoak ziren. Gainontzekoek jakiten dutenean hutsaren truke pisuetan sartu daitezkeela, kontrolaezina izango da. Guztiok ditugu beharrak. Legea bete egin behar da.



**Irune Betelu**

**39 urte, teknikaria**

Batetik, etorkinek zaila dute hemengo egoerara egokitzeko. Eta bestetik, Udalak agian beste zerbait eskaini zezakeen. Egoera prekarioan daude eta edozein lekutan sartzen dira.



**Arkaitz Alberdi**

**25 urte, langabetua**

Bai, ezin zuten egoera horretan jarraitu. Eurek egokitu beharko lukete hemengo egoerara. Imajinatu norberaren etxera sartzen direla! Bizitza nekeza da guztiontzat.

## 10eko TXIKIAN



## BEÑAT ARRIOLA

*Ikaslea*

**1. Zer falta zaio herriari?**
Zezen gehiago jartzea sokamuturrerako. Familian tradizio handia dago, aitatarengandik hasita, eta, adin txikikoa izanda ere, parte hartuko nuke. Asko gustatzen zait.

**2. Azken aldian egindako obretatik, zein izan da astakeriarik handiena?**
San Bartolomeko etxeak botatzea.

**3. Zein da elgoibartarrik famatuena, zure ustez?**
Zuhaitz Gurrutxaga.

**4. Ausartzen zara kultur eskaintzari tentsioa hartzen?**
Ez naiz oso zinezalea, baina enteratu naiz domeketan kendu dutela gaueko emanaldia. Herriko jaietan musika taldeen emankizunak ikusten ditut.

**5. Aukera nahikoa badago Elgoibarren kirola egiteko?**
Bai, baina egia da kiroldegia txiki geratu dela. Nahikoa gauza daude: muskulazio-gela… Nik Mintxetan futbolean jokatzen dut.

**6. Aukeratu egun bat, lagun bat gure herrira gonbidatzeko...**
Txiki Eguna.

**7. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?**
Ez dut uste, polita izango litzateke bainatzea. Gaur egun dagoen kutsadurarekin ezinezkoa da. Depuradorarekin zertxobait garbiago dago.

**8. Herri euskalduna iruditzen zaizu gure herria?**
Bai, gure koadrilan euskaraz mintzatzen gara, baina badago jende erdalduna herrian. Eibarrekin konparatuz, askoz ere euskara gehiago entzuten da.

**9. Askotan atera da gure herria telebistan, ezta?**
Bai, atzo (apirilak 9) Altzolari buruz hitz egin zuten *Pasalo*-n, etxe okupatuaren inguruan. Normalean telebistan kontu negatiboei buruz hitz egiteko aipatzen dute Elgoibar.

**10. Behar duzun guztia daukazu herrian?**
Ez da oso polita. Hondartza falta zaio, eta ez dauka ezer berezirik ikusteko.

**Pedro Muguruza kaleko espaloian eskailera gehiegi dago:** "Pedro Muguruza kaleko oinezkoak ezin gara espaloitik ibili, eskailera gehiegi dagoelako. Umeen kotxearekin edo erosketen karroarekinjoaten garenean, autoen bidera atera behar gara derrigorrez, ez baitago horrenbeste eskailera pasatzeko modurik. Gurpildun aulkian ibiltzen diren hainbat ezindu ere, bizi dira auzoan eta horiek ere, auto artean ibili behar izaten dute. Egoera arriskutsua da, bai oinezkoentzat eta baita auto gidarietnzat ere. Eskailerak kendu eta aldapak jarri behar dira".





**Akordeoi topaketak herriko kaleak alaitu zituen:** "Ederra izan zen joan zen domekako akordeoi topaketa. Herria musikaz blai esnatu zen eta sekulako alaitasuna zegoen bazter guztietan. Akordeoi doinuak entzuten ziren herriko bazter guztietan eta kalean sekulako giro bikaina zegoen. Kalejira ederra egin zuten eta Olaizaga kiroldegian eskaini zuten kontzertua ere, oso polita izan zen. Musikazale mordoa bildu ginen bertan eta izugarri gozatu genuen. Txalo bero bat eman nahi diogu Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolari horrelako ekitaldia antolatzeagatik".

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:*barren@elgoibarkoizarra.com*
943-74 41 12



# Altzolako Aurretxe etxean bizi ziren lagunak bertatik atera zituzten astelehenean etxea garbitzeko

## Mankomunitateko langileek zikinkeriz gainezka aurkitu zuten eraikina

Altzolako bizilagunen eskaera aintzat hartu du Elgoibarko Udalak, eta aste honetan bertan ekin diote etorkinek okupatutako etxea eta ingurunea garbitzeari. Astelehen goizean deitu zuen Altzolako bizilagun batek BARRENera, eta hari esker jakin genuen udaltzainek talde hori etxetik atera zutela. Hala ere, oraindik ezin izan dituzte betirako kanporatu, eta astelehen arratsaldean bertan itzuli ziren.




### Etxejabeen jarrera pasiboa

Alfredo Etxeberria alkateak Altzolako etxeen jabeen jarrera pasiboa kritikatu du. Martxoaren 8an Aurretxe etxearen zati bat erori egin zen eta Udalak berehala alde egiteko eskatu zien bertako bizilagunei, etxeak ez zituelako betetzen bertan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak. Hala ere, Alfredo Etxeberria alkateak jakinarazi zuenez, etxejabeek egin behar dute presioa okupak bertatik joan daitezen, baina “ez dute ezer egin”.

Etxea okupatu zutenek kasurik egiten ez zutela ikusirik, joan zen astean Donostiako Epaitegian egin zuen Udalak kaleratzeko eskaera, eta erantzunaren zain daude. Azken berrien arabera, eraikinaren jabeak pausoak emateko prest daude.

### Zikinkeria arteko bizimodua

Debabarreneko Mankokumitateko langileek zikinkeriaz beteriko hainbat poltsa atera zituzten Aurretxe etxetik eta, horrez gain, kakaz beteriko gela bat aurkitu zuten; antza denez, komun bezala erabiltzen zuten gela.

Aurretxe interes historikodun eraikinen katalogoan sartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura sailak. Etxea XVII. mendekoa da.

**Aurretxen nola bizi diren jaso dugu bideoan: *www.elgoiBARREN.net***

## Eskualdeko ikastaroen berri emateko “Zerikasi” zerbitzua martxan da




Elgoibar Deba, Eibar, Mendaro, Mutriku eta Soraluzeko bizilagunei era guztietako prestakuntzari buruzko informazioa, orientazioa eta aholkularitza emateko zerbitzua da *Zerikasi*. Jaurlaritzak bultzatutako zerbitzu hori doakoa da, eta aurrez-aurre edo internet bidez jaso daiteke aholkularitza. Bizitzan zehar ikasten jarraitzeko interesa duen pertsona guztientzako da.

IMHn dauka egoitza, eta Debabarreneko herri guztietara nola hurbildu aztertzen ari da. Informazio gehiago: *www.zerikasi.com* web gunean edo 943 74 82 71 telefonoan.

## Protagonista **Arnaldo Otegi**



Espainiako Auzitegi Konstituzionalak atzera bota du Arnaldo Otegik iazko ekainean jaso zuen zigorraren aurka aurkeztutako babes helegitea. Jose Miguel Beñaran *Argala*-ri 2003. urtean Arrigorriagan (Bizkaia) egindako omenaldian terrorismoa goratu izana egotzi, eta 15 hileko espetxe zigorra ezarri zioten elgoibartarrari. Ekainaren 8an espetxeratu zuten Otegi, eta Martutenen dago preso ordutik. Hamar hilabete pasatu dira dagoeneko eta abuztuan beteko du zigor osoa.

## Zenbakia **170.000**

Elgoibarko Udalak 170.000 euro inbertituko ditu Kultur Etxean igogailua jartzeko. Erakusketa gelaren albo batean jarriko dute igogailua, sarreratik ezkerreko aldera, eta eraikinaren bigarren solairuraino iritsiko da, Gazte Informazio Bulegoa eta hitzaldi gela dauden lekuraino, hain zuzen ere.

## Txokoa **Biardana elkarteko sukaldea**

Biardana musika elkarte gastronomikoan sua piztu zen zapatu gauean eta sukaldearen zati bat erabat kiskalita geratu zen. Oraindik ez dakite zein izan zen sutearen arrazoia, baina litekeena da gaizki itzalitako zigarroren baten ondorioz piztu izana. Zorionez, kalte materialak bakarrik eragin zituen suak, baina inguruko bizilagunek ez dute erraz ahaztuko gertakaria: goizaldeko 3:00etatik 4:00etara, hamar etxebizitzatako bizilagunek euren etxeetatik irten behar izan zuten, suhiltzaileen aginduz. Ke handia zegoen, eta sua zenbaterainokoa zen ikusi arte, bizilagunak babesteko neurria izan zen. Biardana elkartea hiru astetan itxita egongo da.



### Elgoibarko Izarraren batzar orokorra

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak apirilaren 14an egingo du bazkideen urteko batzar orokorra, arratsaldeko 19:00etan Kultur Etxean. Besteak beste, Ane Zabalak presidente kargua lagako du eta bere ordezkoaren aurkezpena egingo du elkarteak. 2008rako helburuak aurkeztuko ditu.

### Eskaparate lehiaketa eta Danborradaren entsaioak

Trinitateetako Danborradaren Batzordeak eskaparte lehiaketa antolatu du. Maiatzaren 5etik 17ra izango da lehiaketa eta herriko establezimendu guztiek hartu dezakete parte. Irudimena, orijinaltasuna, publizitate mezuaren eraginkortasuna eta eskaparate Danborradarekin duen lotura hartuko dira kontuan. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du.

Bestalde, danborradaren entseguak apirilaren 15ean hasiko dira. Zazpi entsegu izango dira guztira (apirilak 17, 22, 24 eta 29 eta maiatzak 6, 8 eta 13) eta denak gaueko 21:30ean egingo dira merkatu plazan. Maiatzaren 15ean danborradako partaide guztiek entsegu nagusia egingo dute 21:00etan.

### Arratsalde literarioak

Haizea emakume taldeak arratsalde literarioak antolatu ditu. Hilaren 14an izango da lehenengo saioa 16:00etan Kultur Etxean. Bertan, liburu bat irakurri eta komentatu egingo dute. Informazio gehiago 943 74 32 06 telefonoan.

### Sebas Etxaniz presoa Alacantera urrundu dute

Sebas Etxaniz preso elgoibartarra Valdemorotik Alacanteko espetxera urrundu dute eta, gainera, isolatuta dago. Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak “espainiar Estatuaren dispertsio eta errepresio politika” salatu ditu.

# Ana Alberdi Apellaniz izan da Donostiako Kutxaespazioko 1.000.000. bisitaria

### Saria astebukaera batean gurasoekin Pariseko Zientzien Hiria ezagutzea izango da

Ana Alberdi Apellaniz (14 urte) Elgoibar BH Institutuko ikasle mendaroarrak ez du erraz ahaztuko Miramongo Zientziaren Kutxagunera ikaskideekin batera egin zuen bisitaldia. Museo askotan, Guggenheimen esatereko, saritu egiten dituzte bisitari horiek, eta Miramongo guneak ere lehen sari handia eman du. Gutxik zekiten milioi bat bisita izatetik gertu zegoela, eta lehen harritua Alberdi izan zen. Prentsaurreko batean ere parte hartu behar izan zuen, eta TeleDonostiko saio batean ere agertu da.

### Pariserako bidaia

Saria astebukera bat gurasoekin Parisen pasatzea izan da, Frantziako zientzia museo garrantzitsuenetako bat ezagutzeko aukera izango du: *Cité des Sciences de Paris la Villette*. Pariseko gune horrek hiru ardatz ditu: Elektrizitatea (elektrizitatea eraldatzen duten energia-sistemak ezagutaraztea), hiru eta bost urte arteko haurrentzako espazioa (gertu duten mundua ezagutzeko) eta bost eta hamabi urtekoentzako.

### Sariketa bikoitza

Institutuak jakinarazi duenez, gainera, Miramongo Zientziaren Kutxagunera joateko aukera bera sari bat irabazteagatik lortu zuten ikasleek. Kutxagunea zientzia dibulgaziorako zentroa da; informazio zientifikoa modu erakargarri batean aurkezten duen lekua, komunikatzeko modu berriak erabilita: saiakuntza bidezko komunikazioa. Era berean, museoak atal hauek ditu: erakusketa iraunkorreko aretoak, aldi baterako erakusketetako aretoak, haurrentzako Txikiklika, astronomia-behatokia eta multimedia-planetario digitala.



*Apirilaren 7an jaso zuen saria Ana Alberdik (eskuman).*

## Apirilaren 18an Debabarreneko Koello 104 eta Darling Shoes taldeek Gaztetxean joko dute

Debabarreneko bi musika talde izango dira ikusgai, apirilak 18an, Mendaroko Gaztetxean 22:30etan: Koello 104 eta Darling Shoes. Muntxopa eta Txis elgoibartarrek, Txepe ermuarrak eta Peñal plaentxiarrak osatzen dute Koello 104 punk & roll taldea. Orain dela zazpi urte Fundizioko kultur mugimenduaren inguruan sortutako taldea da. Sarrera 2 eurotakoa izango da eta kontzertuaren bukaeran, mp4 bat zozketatuko da. Irabaziak Trinidade ondare historiko eta kulturalaren aldeko poltsara joango dira.



# Elgoibar ikastolako DBH 1eko ikasleek Kilimongo ur depositoa bisitatu dute

Martxoaren 11n Kilimongo ur deposito-depuradorara joan ziren Elgoibar Ikastolako DBH 1eko ikasleak. Bertan uraren garbiketaren prozesu guztia azaldu zieten, baita instalazioak erakutsi ere. Bisitaren helburua uraren gaia jorratzea izan zen, edaten dugun ura nondik datorren jakitea eta, bide batez, edangarri bihurtzeko zer egiten duten ikustea. “Benetan oso interesgarria izan zen, eta Ur Partzuergoko adituek oso ondo azaldu ziguten guztia. Gainera kontrol gela ere erakutsi ziguten, eta bertan ikusi genuen ordenagilu bidez nola kontrolatzen duten guztia”, adierazi dute ikastolako irakasleek. Kilimongo depuradoran, iturrietako eta putzuetako ura edangarri bihurtzen da. Segunduko 120 litroko tratamendu ahalmena du, eta urtero eskualdeko herrietan 2.000 milioi litro banatzen ditu, gutxi gorabehera. Hornidura-sistema horrek edateko ura hornitzen du Mendaron, Elgoibarren, Deban eta Mutrikun.



## motz

### Haurtzaindegia egiteko proiektua onartu du Udalak

Bizkotxoak egiten dituzten lekuan haurtzaindegia egingo dute. Udaleko plenoak haurtzaindegiaren oinarrizko proiektua onartu zuen. Horren arabera, Jose Maria Arkonadak urriaren 18a baino lehen laga beharko du gune hori. 110.000 euroko aurrekontua izango du haurtzaindegiak. Egitasmoa onartu aurretik, Eusko Jaurlaritzako tenikariek ontzat eman zuten lekua eta haurtzaindegi bat egiteko aproposa zela ziurtatu zuten.

### Sukaldari txikiak

Otarteko goxoak prestatu zituzten herriko gaztetxoek Goñati frontoian martxoaren 29an. Leike Begirade taldeak antolatu zuen Sukaldari Txikien jardunaldia. Zer egin eta zer jan egon zen. Hurbildu zirenek mokadu dastagarriak gozatzeko aukera ez zuten galdu.

### Hitzaldia

Katxalin Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen Elkarteak antolatuta, “Bularreko minbiziaren goiz detekzio Programa” izeneko hitzaldia Donostiako Institutu Onkologikoko Mª Jesus Mitxelena doktoreak emango du apirilaren 15ean 18.30etan. Bertan bularreko minbiziaren arrazoien azterketaz, tratamenduaz... hitz egingo du.







## Gure berbak

### Aditza (12): NOR-NORI-NORK plurala

NOR-NORI-NORK aditzekin jarraittuko dogu, objektua pluralekua debenekin. Hona zein diran formarik erabillixenak:

- Neutruak: *Liburu bi erosi **diodaz** lagunari; liburu bi erosi **dioz** harek lagunari; liburu bi erosi **dioguz** guk; liburu bi erosi **diozuz**; liburu bi erosi **diozuez**; liburu bi erosi **diuez** gurasuak alabari.*

- Hikakuak (giz.): *Liburu bi erosi **jauadaz** lagunari; hik liburu bi erosi **diuaz** lagunari; liburu bi erosi **jauaz** harek lagunari; liburu bi erosi **jauaguz** guk; liburu bi erosi **jauez** gurasuak alabari.*

- Hikakuak (emak.): *Liburu bi erosi **jauanadaz** lagunari; hik liburu bi erosi **dionaz** lagunari; liburu bi erosi **jaonaz** harek lagunari; liburu bi erosi **jaunaguz** guk; liburu bi erosi **jaonez** gurasuak alabari.*

Jakiña da gure hizkeran pluralgille nagusixa –Z dana. Ba, horixe erabilli dogu adibidiotan. Kontua da beti ez dala pluralgillia erabiltzen objektua pluralekua izan arren: hau da, *bi liburu erosi diogu lagunari* esaldixa ere erabiltzen dala, *bi liburu erosi dioguZ* lagunari esaldixarekin batera.

Beste bi arau: 1. Bokal arteko –d– galdu leike ahoskatzerakuan: *diadaz—> diaz*; 2. D / R alternantzia ere badogu: *dixadaz / dixaraz; diodaz / dioraz ...*

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

### 1970

Aste honetako erretratu zaharra Jorge Urbietak laga digu. 1970. urtean Ezcarayn (Errioxa) ateratako argazkia da. Jorgek berak atera zien argazkia bere lagunei. Jorgeren *Seiscientosean* joan ziren bi lagun Ezcarayra eta han Morkaiko mendizale elkartekoekin egin zuten topo. El Arca de Noe tabernaren aurrean atera zuten erretratua. Ligatzera joaten zirela kontatu digu Jorgek, baina, neskekin baino gehiago, Errioxako tabernekin ligatzen zutela adierazi digu.

Garai hartan bidaiatzeko zaletasun handia zeukaten Jorgek eta bere lagunek. Erretratuan azaltzen den *Seiscientosak* kilometro mordoa egin zituen Espainian eta Europan: Portugal, Bartzelona eta Italian ibilitakoa da auto hori. Italiara lau lagun joan ziren, bi kanping-denda, lo zakuak, butanoa... nahi zuten leku guztietara iristen ziren *Seiscientosarekin*. Ikusi dezagun zeintzuk diren argazkiko mutilak:

Ezkerretik hasita: Jose Luis Prado, Epelde (†), Xabier Etxeberria, Sebastian Etxaniz eta Juan Bautista Izagirre (Altzolako Printzerrikoa).




# I. URTEURRENA



Maria Arrieta Usabel
*(Candido Txurrukaren alarguna)*

2007ko apirilaren 9an hil zen, 77 urte zituela, *Maria Arrieta Usabel* andrearen oroimenez I. urteurreneko meza izango da, larunbatean, apirilak 12, arratsaldeko 19:00tan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.




ikastolak
etorkizuna ereiten
www.elgoibarikastola.net
ongi etorri
gurean izena
eman duzuen
guztioi
eskerrik asko!
etorkizuna gustura sauzatzen
943 744441
www.ikastola.net
elgoibar@ikastola.net


Mikel Urdangarin
Apirilak 18, ostirala
22:15ean
Herriko Antzokian
Sarrerak aurrez erosteko aukera Kultur Etxean,
goizez Euskara Sailean, eta arratsaldez,
Gazte Informazio Bulegoan
Anek idatzi dit zutaz
Mikel Urdangarin
Euskara saila
Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia



Chevrolet Epicak zoriontsu egingo zaitu.
Horrela ez bada, dirua bueltatuko dizugu.
EPICA
EPICA
Chevrolet markako edozein auto erosita, hilabete edo 3.000 kilometro dauzkazu egindako erosketa ona izan dela baieztatzeko. Chevrolet Epicak honako hauek ditu: ABS, EBD, ESC, 6 aire-poltsa, antipartikuladun filtro diesela, aire girogailu automatikoa, Cruise kontrola, euriarendako eta atzealdeko aparkaleku sentsorea eta 16 pulgadako aleaziozko hagunak.
EPICA VCDi
150 ZP Diesela
5 urteko garantia
20.900 eurogatik
GEHIAGO DA.
CHEVROLET
Giauto Eibar • Otaola, 27 • Tel.: 943 202 500 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es
Giauto Olaberria • Karobi Ind. • Tel.: 943 885 150 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es




ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA
Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!
Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria !
ZEZENBIDE AUTOESKOLA
ORDUTEGIA
10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era
LEKUALDAKETA
San Frantzisko, 52 behea
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR
- Euskarazko eta gaztelerazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

# Aurresku eta soinu zahar txapelketa Elgoibarren jokatuko da asteburuan

## Zapatuan 11tik 15 urtera artekoek jardungo dute dantzan, eta domekan 7tik 11ra artekoek

Dantzari gazteenek Herriko Antzokian jardungo dute asteburu honetan, Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketa Elgoibarren jokatuko da-eta. Aurten dantzari elgoibartarrek maila ona erakutsi dute, neskek batez ere.

Bihar, zapatua, B sailekoen txanda izango da, 11tik 15 urtera arteko neska-mutilena, 16:30etatik aurrera. Mutilek *Desafioa* eta *Brokel Makilena*-ren zortzikoa dantzatuko dituzte. Sei mutilek parte hartuko dute. Horietatik bi elgoibartarrak dira (Aitor Asenjo eta Imanol Iturrino).

Gero nesken txanda etorriko da. *Erribera* eta *Saltokako Zortzikoa* dantza egin beharko dute. Nora Bastida, Iraitz Gonzalez, Nerea Perez, Ane Espilla, Leire Melgosa, Itziar Aldalur, Nerea Badiola, Arantza Ferreiro eta Maria Ferreiro elgoibartarrek parte hartuko dute. Beasainen lehenengo lau postuak eskuratu zituzten neska elgoibartarrek.



Domekan, berriz, A sailekoek jardungo dute (7-11 urtekoek), 11:00etatik aurrera. Mutilek *Alpargata* eta *Agurra*-rekin jardungo dute. Mutil elgoibartarrik ez da izango.

*Ormatxulo* eta *Agurra* erakutsiko dute neska gazteenek. Maddi Mendibil, Naia Makazaga, Andrea Arregi, Miren Astigarraga eta Nora Kortaberria elgoibartarrek parte hartuko dute domekako saioan.

# Euskal Herriko hirurehun soinujole baino gehiago etorri ziren Elgoibarrera domekan Akordeoi Topaketan parte hartzeko

Elgoibar akordeoiaren hiriburu bihurtu zen domekan. Izan ere, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoatik etorritako 31 musika eskolatako 338 soinujole baino gehiago elkartu ziren Akordeoi Topaketan.

Goiz heldu ziren akordeoilari Elgoibarrera. Entsaio nagusiarekin 9.00etan hasi ziren. Gero, soinujole guztiak bost taldetan banatuta kalerik kale ibili ziren herria alaituz, Plaza Nagusian denak elkartu ziren arte.

Kontzertua 13:00etan eskaini zuten, Olaizaga Kiroldegian. Ikuskizunak jende mordoa bildu zuen, eskenatoki gainean ehunka lagunek parte hartu zuten-eta. Izan ere, abeslariak, akordeoilariak, dantzariak eta beste musikari batzuk parte hartu zuten.





Olaizaga kiroldegiko ikuskizunak ordubete inguru iraun zuen eta soinujoleen musikaz gain, Elgoibarko gaiteroen doinuak ere entzun ahal izan ziren. Horrez gain, Inazio Bereziartua musika eskolako bi abeslarik kantuan jardun zuten eta Haritz Dantza taldeak *Ezpata joko nagusia* eskaini zuen. Maite Janeirok, Inazio Bereziartuako irakasleak, zuzendari lanetan jardun zuen.

Seigarren akordeoi topaketa aurrera atera ahal izateko gogor egin dute lan Inazio Bereziartua musika eskolako kideak eta emaitzarekin oso pozik gelditu dira.

# Elgoibartarrek mendi eskiaren balantze positiboa egin dute

## Euskadiko kopa Andres de Regil probarekin bukatu da

Mendi eskiko Euskadiko kopa amaituta, balantzea egiteko garaia heldu da. "Denboraldi hau berezia izan da. Gabonetan Euskal Mendi Federazioko eskiko batzordeak eta, bereziki, Andoni Areizagaren eta Antxon Bandresen esfortzuari esker emandako ikastaroan asko ikasi genuen, eta ondorengo lasterketetan praktikan jartzeko aukera eduki dugu. Lehen lasterketatik azkenera arte eboluzio ikaragarria egin dugu", adierazi du Arkaitz Iruretak.



### Andres de Regil zeharkaldia

Andres de Regil BBK zeharkaldian Joseba Elustondok eta Iker Leonardok parte hartu zuten batetik, eta Iñigo Larizek eta Arkaitz Iruretak bestetik. Froga azkenean pasa den astebukaeran egin zen.

Adiskidetasun onena erakutsi zuen taldeari sari berezia ere eman zioten antolatzaileek. Picos de Europako proba gogorra izateaz gain, teknikoa ere izan zen, 1.600 metroko desnibela baitzuen zapatuko etapak.

## Izenematea Eskubaloi Campusean

Eskubaloi campusean izena emateko epea apirilean bukatuko da. Herrian ekimen hori bultzatzen den lehen aldia da, eta Elgoibar, Mendaro eta Deban 1995, 1996 eta 1997an jaiotako neska-mutilentzat da. Uztailaren 1etik 11ra Elgoibarren egingo da, eta uztailaren 13tik 19ra Eibarren. Astelehen eta eguenetan, 16:30etatik 18:00etara, eman daiteke izena kiroldegian, edo 50 euroko diru sarrera eginez Sanlo EKTren kontu korrontean: 3035 0007 25 0070027086 (Euskadiko Kutxa/Caja Laboral).

Plazak mugatuak direnez, diru sarreren ordena errespetatuko da, izena jende gehiagok ematen badu. Kanpoan geratuko direnei dirua bueltatuko diete. Bilera ere egingo da, ume kopurua ezagutzen denean.



# Luis Kortabitarte Makalura igotzeko espedizioarekin irtengo da gaur

## Himalayako mendia munduko bosgarren garaiena da




Gaur irtengo da Himalaya aldera Luis Kortabitarte. Makaluko gailurrera (8.463 metro) iristea da espedizioaren helburua. Koke Lasak animatu zuen eta eurekin batera, Pedro Garcia *El loco* ordiziarra, Ander Goitia beasaindarra eta Carlos Martinez eta Luis Angel Rojo Gorri arabarrak joango dira. Kortabitartek entrenamendu zorrotza egin du munduko bosgarren gailurrera sasoi onean heltzeko. Lehenengo egunak aklimatatzen pasatuko dituzte eta apirilaren 20 inguruan hasiko dira igotzen. Gaur, apirilak 11, hasiko duen erronkari baiezkoa esan baino lehen, "dezente meditatu" du, erronka gogorra izango delako.

### 2002ko saiakera

Orain dela bost urte Nanga Parbat (8.125 metro) igotzeari ekin zion Luis Kortabitartek, baina ez zen gailurrera iritsi. Sasoi hartako espediziotik kide gutxik jarraitzen dute, asko lesionatu egin baitziren. Jarduera mordoa egin zuten.



## Josu Merino, Morkaikoren hurrengo emanaldiko hizlaria

1997an, Simon Eliasekin batera Cerro Torre ospetsua igo zuen Merinok, Ferrari bidetik. Garai hartan beste bi aldiz bakarrik igaro zen gizakia bide hartatik. Apirilaren 16an ekarriko du gogora erronka hura Musika Eskolako auditorioan, 21:30etan. Zailtasunak pilatu egin zitzaizkien gainera: 25 egun elurrezko koba batean igaro behar izan zituzten, ekaitzak harrapatu baitzien.

## EMAITZAK

**FUTBOLA**
Basconia 2 – Haundi 1
Urola 1 – Elgoibar 1 (erreg.)
Elgoibar 2 – Tolosa 0 (jubenilak)
Euskalduna 0 – Elgoibar 5 (kadeteak)
Orioko 1 – Elgoibar 3 (infantilak)
Elgoibar 5 – Luberri 1 (infantil txiki)
Elgoibar 2 – Ordizia 5 (alebinak)
Anaitasuna 1 – Elgoibar 3 (neskak)

**ARETO FUTBOLA**
Kenci 2 – La Balleta 5 (euskal liga)
Elgoibar 6 – MCM 5 (jubenilak)

**HIRU TXIRLO TXAPELKETA**
1. Angel Ibarluzea 11 puntu
2. Ganix Rodriguez 10 puntu

**PILOTA**
Lagunak 18 – Ekoriatza 22 (nagusiak)
Eibar 6 – Eskoriatza 22 (jubenilak)

**XAKEA** 2. mailako igoera fasea
Lerun Elgoibar 4 – Ziburu 0

## AGENDA

**ARETO FUTBOLA** (Kiroldegian)
Zapatua, 12
16:00 Xagua – UDA
17:30 Tecnomeca – Ereintza

**ESKUBALOIA** (Kiroldegian)
Barixakua, 11
20:00 Tecnifuelle – Askartza (Sen. neskak)

**PILOTA** (ikastola)
Barixakua, 11
20:00 Lagunak – Arrasateko (kadeteak)

Zapatua, 12
12:30 C. Astigarraga – Leizaran (inf. neskak)
12:30 H. Txarriduna – Pilar Bidasoa (inf. mutilak)
17:30 Tecnomeca – Ereintza (kadete mutilak)
Domeka, 13
09:30 IMH Elgoibar – Aloña Mendi (kad. neskak)
11:00 Cometel – Aloña Mendi (jubenil neskak)

**XAKEA**
Zapatua, 12
12:00 Lagunak – Huarte (Kad.)

**SASKIBALOIA** (Kiroldegian)
Domeka, 13
12:30 Gabi – Hierros Franciscanos

## IDARRAGA SARIAK

**HAUNDI**ko jokalari erregularrena 07/08

| Jokalariak | Puntuak |
|---|---|
| 1. Keman | 82 |
| 2. Navarrete | 78 |
| 3. Gabilondo | 67 |

## LANA

### ESKAERA

- Interna edo orduka lan egiteko prest. ☎ 610 632 782
- Garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 632 090 180
- Orduka lan egiteko prest. ☎ 654 610 231
- Mutila, pintore aprendiza izateko edo igeltsero lan egiteko prest. ☎ 671 439 926
- Gauean lana egiteko, sukaldari laguntzaile aritzeko eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ 699 813 826
- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak zaindu, garbiketa lanak. ☎ 648 210 838
- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak zaindu, garbiketa lanak. ☎ 616 230 814
- Neska, edozein lan egiteko prest. Egun osoa ala erdia. ☎ 618 177 283
- Ingeleseko partikularrak ematen dira: ahozkoa eta Business English. ☎ 696 964 069
- Ingeleseko partikularra ematen zaie helduei. Maila guztiak. ☎ 606 733 850
- Emakumea, lanerako prest: nagusiak zein umeak zaindu, garbiketa lanak... ☎ 696 284 351
- Partikularra ematen da Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat. ☎ 943 53 10 54
- Mutil arduratsua, zerbitzari lanetarako prest. ☎ 626 590 632
- Emakumea, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak ordu batzuetan zaintzeko prest. Josteko lanak ere egiten ditut. ☎ 943 74 22 01 / 652 715 908
- Neska, sukaldari, zerbitzari... lanetarako prest ☎ 649 694 790
- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak, umeak zaindu... Goizez. ☎ 699 690 190
- Neska gaztea, edozein lan egiteko prest. ☎ 677 300 105
- Frantses partikularrak ematen dira. ☎ 664 126 273
- Bi irakasle, partikularrak emateko prest, LH, DBH, Batxilergoa eta Heziketa zikloak. ☎ 653 717 972
- Mutil gaztea, banatzaile lanetarako prest. Badaki euskaraz. ☎ 620 049 420
- Orduka edo 9:30etatik 16:00etara garbiketa lanak edo nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ 680 250 527

### ESKAINTZA

- Sukaldari laguntzailea behar da lehenbailehen. Esperientzia beharrezkoa da. Urtebeteko kontratua. ☎ 943 74 87 78
- Sukaldari laguntzailea eta jantoki eta barrarako zerbitzaria behar dira. ☎ 688 623 668 / 688 623 667
- Zerbitzaria behar da. ☎ 943 12 12 62
- Hezkuntza Berezia egin duen edo egiten ari den laguna behar da umea zaintzeko uztaileko goizetan. ☎ 615 787 118
- Mutila behar da igeltseritza lanetarako. ☎ 605 705 204
- Neska arduratsua behar da umeak zaintzeko. ☎ 943 74 29 66

## ETXEBIZITZAK

### SALMENTA

- Urasandin pisua salgai. Hiru logela bikoitz, bainugela, sukaldea eta egongela. Horma-armairua, balkoia eta galeria (estalitako balkoia) ere badu. Oso eguzkitsua. Komuna eta bainugela. ☎ 626 371 369

## GARAJEAK

- Garaje itxia salgai pista beltzean. ☎ 943 74 23 06
- Pista beltzean garaje marraduna alokairuan. ☎ 665 748 781
- San Roke kalean, Aterpe azpian, garajea alokairuan. ☎ 943 741 436
- 16 m² garaje itxia alokairuan. San Roke kaleko 10ean, kiroldegia atzean. ☎ 943 740 118

## MOTORRA

- Renault Espace salgai. 7 eserleku. 2.200 diesela. ☎ 695 730 442
- Seat Leon 1.9 salgai. 105 zaldi (kit aerodinamikoarekin). 15.000 kilometro. ☎ 647 626 693
- Opel Tigra salgai. 80.000 km. Egoera onean. ☎ 646 742 465
- Opel Vectra salgai. Ondo zainduta. ☎ 656 793 967
- Opel Monterrey 4x4 salgai. Hiru ate atzean, engantxea erremolkerako. 3.100 diesel motorra oso egoera onean. Baserrirako edo ehiztarientzat aproposa. ☎ 646 711 421

## BESTELAKOAK

- Ametsa kafetegia alokairuan edo salgai, Elgoibarren. ☎ 686 608 224
- Baratza konpartitu nahi dut. Alde zaharretik gertu dago. Ura du, simaurra eta lan egiteko erremintak. ☎ 655 723 678 / 943 74 39 19
- Salgai AMC izena duten sukaldeko bateria edo lapikoak. Pieza solteak ere bai. ☎ 639 390 808
- Erdigunean dagoen taberna alokatzen da jabearen erretiroa dela-eta. Terraza du. ☎ 943 74 28 97

## ABISUAK

- Gizonezko erlojua topatu dut. Hilaren 28an, arratsaldean, Erretxindi kalean. ☎ 943 74 16 64
- Nissan autoko giltzak topatu ditut. Hirukutzetan. ☎ 670 039 572
- Urre zurizko ezkon eraztuna aurkitu dut Pedro Muguruzan. ☎ 637 532 824
- Antiojoak galdu dira martxoaren 4an geltoki bidean. Eskertuko da. ☎ 943 74 13 26
- Altzariak, etxetresna elektrikoak, oherako erropa, kortinak eta alfonbra handi eta txikiak behar dira. ☎ 676 444 171
- Mutil batek PSPa galdu du Madalako Eroskitik Gaztelekurako bidean. Eskertuko da. ☎ 656 766 563 / 688 663 032

gaztegune

## BEKAK

### BRITAINIA HANDIA

La Caixa Fundazioa. Lizentziatu eta goi-mailako tituludunentzako 20 beka, Britainia Handiko unibertsitate eta goi-mailako irakaskuntza-zentroetan graduondoko ikasketak egiteko. Epea: ekainaren 13a.

## EKINTZAK

### GAZTE OPORRALDIAK

Gipuzkoako Foru Aldundia. 14 eta 17 urte bitarteko gazteentzat antolatutako programa. Plazak zozketa bidez banatuko dira maiatzaren 8an. Izena emateko epea: Apirilaren 17tik 25era Gazte Oporraldien bulegoan (Gaztegune. Anoeta pasealekua 28) edo Gazte Informazioko Bulegoetan.

## LANA

### BEGIRALEAK

Gipuzkoako Gazte Informazio eta Dokumentazio Zentroa. Begirale izateko hainbat laneskaintza bildu ditu Uda-Txoko web orrian. Eskaintzak ikusteko *www.gipuzkoagazteria.net/uda*

**ELGOIBARKO GAZTE INFORNAZIO GUNEA**

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: *gib@elgoibar.org*
☎943 74 14 61

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan: 11:00etatik 13:00etara
Astelehenetik ostiral arratsaldetan: 16:00etatik 19:00etara.

**OHARRA**: Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira.
Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04


ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartean

**ADMINISTRARIA BEHAR DA**

**ESKATZEN DA:**
- Kontabilitatea.
- Nominak eta zergak (BEZ, PFEZ, Gizarte Segurantza).
- Internet eta informatika (Conta Plus, Excel, Acces, ...)
- Elgoibarren edo inguruan bizitzea baloratuko da.

**ESKAINTZEN DA:**
- 20 orduko lan-dedikazioa.
- Urtea amaitu arteko kontratua (luzatzeko aukerarekin).

Curriculumak entregatzeko: ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea
Ubitarte 4, behea - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 16 26 (Amaia/Imanol)
**E-posta:** *elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com*
**Azken eguna:** Apirilak 25.



• Zorionak, **Aitana**, igandean zure urtebetetzea izango delako. Muxu handi bat familiaren partez.



• Zorionak, **potolo,** Ikastolako laguntxo guztion partetik, muxu handi bat 2 urte egin dituzulako.



• Zorionak, **Naroa**, sorgin txiki. Gaur urtebete egingo duzulako.



• Zorionak, **Lorea**, gure potxolita. Zure familiaren eta bereziki Ane, Ander, Gorka eta Malenen partez.



• Zorionak, **Nerea**, gure txapelduna, 9 urte egin dituzu-eta. Muxu handi bat.



• Zorionak, **Xabi,** zure laugarren urtebetetzean. Patxo handi bat Oierren partez.



• Zorionak, **Maialen,** igandean 2 urte egingo dituzulako. Anaia Markel eta gurasoen partez.



• Zorionak, **Irati**, atzo 10 urte egin zenituelako. Muxu bat zuretzako, familia osoaren partez.



• Zorionak, **Mikel,** 8 urte egingo dituzulako. Aita, ama eta familiaren partez.



• Zorionak, **Marian,** familia guztiaren eta bereziki Naroaren partez.



• Zorionak, **Onintza,** oso ondo pasa zure urtebetetze egunean. Guraso eta bereziki Eiderren partez.



• Zorionak, **Eider,** potxola, apirilaren 7an 3 urte egin zenituelako. Familiaren partez muxu bat.



• Zorionak, **Idoia,** zure bigarren urtebetetzean. Etxekoen eta bereziki Yuriren partez.



• Zorionak, **Judith,** hilaren 4ean 7 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiaren partez.



• Zorionak, **Unai,** etzi 7 urte egingo dituzulako. Guraso eta Ainhoaren partez muxu handi bat.



• Zorionak, **Aitor,** 16an 4 urte egingo dituzulako. Lehengusuen eta amonaren partez.



• Zorionak, **Paula,** 4 urte egingo dituzulako. Familia guztiaren eta bereziki hiru lehengusuen partez.



• Ongi etorri, **Susane Hua Yu,** orain bai etorri da udaberria gure bihotzera. Familiaren partez.



• Zorionak, **Oihane,** atzo 9 urte egin zenituelako. Familia guztiaren eta bereziki zure anaia Jonen partez.



• Zorionak, **Yune,** hilaren 7an 4 urte egin zenituelako. Familiaren eta bereziki gurasoen partez.



• Zorionak, **Juli,** bihar 82 urte egingo dituzulako. Familia guztiaren partez muxu asko.



• Zorionak, **Aimar,** hilaren 5ean urtetxoa egin zenuelako. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **David,** hilaren 5ean 4 urte egin zenituelako. Muxu asko familiaren partez.



• Zorionak, **Jokin,** etzi 8 urte egingo dituzulako. Anaren partez muxu handi bat.



• Zorionak, **Ion,** hilaren 17an 7 urte egingo dituzulako. Anaren partez muxu bat.



• Zorionak, **Olaia,** hilaren 4an 4 urte egin zenituelako. Etxekoen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **tia Kati,** muxu asko Aida eta Tamararen partez.



• Zorionak, **amama,** ondo pasa domekan aittittakin, eta 20xan danok elkartuko gara. 67 muxu! Naia.



• Zorionak, **Asier,** gaur 8 urte egingo dituzulako. Muxu eta opari asko etxeko txapeldunarentzat.

## OKINDEGIA

13 igandea IBARRENEA

## FARMAZIAK

| | 24 ORDUZ |
|---|---|
| 11 | Yudego |
| 12 | Etxeberria *(Santa Ana)* *(*Goizez Zabaleta)* |
| 13 | Zabaleta |
| 14 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 15 | Ibañez |
| 16 | Bidasolo |
| 17 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 18 | Fernandez |

**Escala**
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

**Fernandez**
Herriko enparantza 4, Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

**Zabaleta**
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

## INFORMAZIO GEHIAGO:




Egin klik ***www.elgoiBARREN.net***en

## 11 barixakua

**17:30 Kiribilka programa**
Bitik sei urtera arteko haurrentzako eta euren gurasoentzako. Plaza Handian. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

## 12 zapatua

**10:00 Argazki ikastaroa**
Ongarrik antolatuta, argazki ikastaroa izango da Kultur Etxean. Goizez eta arratsaldez izango da. Domekan ere bai. Irakaslea: Gorka Salmeron argazkilaria. Informazio gehiago: 665 726 907

**11:30 Udaberri Festa**
Atxutxiamaikak antolatuta, Plaza Handian.

**16:30 Aurresku eta Soinu Zahar txapelketa.**
Herriko Antzokian. 11-15 urteko neska-mutilak. Antolatzailea: Bereziartua musika eta dantza eskola.

## 13 domeka

**10:00 Mendi irteera**
Ikastolako gurasoek antolatuta, Besaide mendira (550m) egingo dute irteera.

**11:00 Aurresku eta Soinu Zahar txapelketa.**
Herriko Antzokian. 7-11 urteko neska-mutilak. Antolatzailea: Bereziartua musika eta dantza eskola.

**18:00 Paradisu zinema**
*Rastafarians and the mistic of Bob Marley* dokumentala eta *Rockers* filma. Gaztetxean.

## 14 astelehena

**10:30 Musika Tresnen saio didaktikoa**
0+Hatz, euskal musika tresnen saio didaktikoa. Herriko Antzokian.

**16:30 Literatur txokoa**
Haizeak antolatuta, “tardes literarias” literatur txokoa. Kultur Etxean.

**19:00 Batzar orokorra**
Elgoibarko Izarra kultur elkarteak bazkideen urteko batzar orokorra egingo du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 16 eguaztena

**21:30 Mendi emanaldia**
osu Merinok Cerro Torre mendiari buruzko hitzaldia eskainiko du. Musika Eskolako auditorioan. Antolatzailea: Morkaiko M.E.



# ESKERTZA

*Beti izango zara gure bidea argitzen duen izarra.*



2008ko apirilaren 6an hil zen, *Jose Perez Hermecheo* jaunaren sendiak
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

# 18 *barixakua*

17:30 **Kiribilka programa**
Bitik sei urtera arteko haurrentzako eta euren gurasoentzako. Plaza Handian.
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

22:15 **Kontzertua**
Mikel Urdangarinek *Anek idatzi dit zutaz* diskoa aurkeztuko du Herriko Antzokian.

22:30 **Kontzertua**
K-104 eta Darling Shoes musika taldeen kontzertua. Mendaroko Gaztetxean.




**«En el valle de Elah»**
11, barixakua: 22:15
12, zapatua: 19:00-22:15
13, domeka: 19:00

**«Horton»**
13, domeka: 16:30

**«El violin»**
17, eguena: 21:30










ingelesa

frantsesa

alemaniera

italiera

txinera

# Akademia berria ume eta gazteentzako

ILS akademiak (Industry Language Services) 1994. urtetik ematen ditu hizkuntza eskolak IMHn. Uztailetik aurrera ume eta gazteentzako akademia berria irekiko du programa berezi batekin. Enjoy 2008-2009 bitartez, ikasten ari diren hizkuntzan naturaltasunez eta konfiantzaz hitz egitea da helburua, ama-hizkuntzatik itzulpenik egin gabe.



## Hiru arlo

ILSk hiru arlo hartzen ditu bere gain: Ikastaroak atzerrian, hizkuntza-ikastaroak eta itzulpen eta interpretazio lanak. Ikastaro guztiak enpresen eta ikasleen beharretara egokitu daitezke. Hizkuntza ikastaroak enpresetan, modulu komertzialak eta teknikoak, “One to one” banako eskolak, eskola trinkoak uztailean eta talde irekiak mailaren arabera egin daitezke. Itzulpen eta interpretazio lanak hizkuntza horretako berezko hiztunak eta arlo horretako adituak egingo ditu.

Debabarrenean bost hizkuntza horiek ematen dituen akademia bakarra da ILS (www.ils.es)

## 791 ikasle 2007-2008an

Txinera irakasten orain dela lau urte hasi ziren, eta ikasturte honetan 48 ikasle ari dira ikasten. Ingeleseko eskolek dute ikasle gehien (634), frantsesak (63), alemanak (60) eta italierak (6).

Irakasle gehienak natiboak dira, eta eskarmentu handia dute euren hizkuntzak irakasten. Enjoy programaren bidez ere hizketan jarriko da arreta, eta ez idatzian. Haur bakoitzaren mailaren araberakoak izango dira idatzizko ariketa horiek ere.



# ILSek

## Maalako etxe berrietan

# akademia berria zabaltzen du

**Industry Language Services**

ingelera

• 4 urtetik gorako haurrak, gazteak eta helduak

frantsesa

• Uztailerako programa berezia haurrentzat

alemana

• 2008-2009 ikasturterako matrikula irekia.
• IMHan gaude.

italiera

txinera

www.ils.es 943 744 040

INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES

IMH

Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

# Elgoibarko IMH

ingeniaritza imh

## DBH amaitu ondoren

### Heziketa Zikloa Erdi-Maila A/D ereduak

**2 urtez**

3 hilabeteko praktikak enpresan

Arloak:

- Mekanizazioa
- Makineria eta linea eroanbideen instalazioa eta mantenimendu elektromekanikoa

Sarbide froga eginez gero Goi-Mailara pasa daiteke

**Titulua: Teknikaria**

## Batxilergoa ikasi ondoren

### Heziketa Zikloa Goi-Maila A/D ereduak

**2 urtez ........................ + 3 urtez = eman 5ekoa!**

3 hilabeteko praktikak enpresan

Arloak:

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa(*)
- Industri ekipoen mantenimendua(*)

**3 urtez**

3 urtetako lan esperientzia

- BERRIA: **IKASI ETA LAN** (*) arloetan

**Titulua: Goi-mailako Teknikaria**
POI metodologia (PBL)
Irakaskuntza Eleanitza

## Goi-Mailako Zikloen ondoren

### Ingeniaritza Eskola

3 urtetako lan esperientzia.

Ezaugarriak:

- Lan esperientzia lortu ikasten ari zarela
- Ikasketak ordaindu irabazitakoarekin
- Boloniako itunean indarrean dagoen titulu europar ofiziala
- Atzerrian lan-egonaldia

**Titulua: Ingeniaria**
Txandakako Metodologia
Irakaskuntza Eleanitza

ei.cesi

## ZIKLO ETA INGENIARITZAKO ATE IREKIAK:

## Apirilak 19, larunbata - goizeko 11:00etan

IMH - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 41 32 - imh@imh.es - www.imh.es